

JAIETAN EMAN DAITEKEEN INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN ERABILTZEKO PROTOKOLOA



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1.	Nolako izan den protokoloaren eratze-prozesua.....	3
1.2.	Ze indarkeria kasuri eman nahi die erantzuna protokolo honek	4
	Indarkeriaren piramidea.....	5
1.3.	Ze momentutan egongo da martxan protokolo hau.....	6
1.4.	Zeintzuk izango dira protokoloa hau gidatuko duten printzipioak	6
2.	BURUTZEA ADOSTU DENA.....	8
2.1.	Jaiak hasi aurretik burutuko diren ekintzak	8
2.2.	Eraso baten aurrean egn beharrekoak.....	9
2.3.	Eraso baten ondoren burutuko diren ekintzak	11
3.	KOORDINAZIO TALDEA.....	12
3.1.	Osaketa.....	12
3.2.	Funtzioak	13
3.3.	Funtzionamendua	13

1. SARRERA

1.1. NOLAKOA IZAN DEN PROTOKOLOAREN ERATZE-PROZESUA

Protokoloa eratze prozesuan parte hartu dutenek

Herri eragileen zerrenda

Emakume taldea

Txozna batzordea:

Gazte Asanblada:

Udal langileak eta udal ordezkariak

Kultura

Parekidetasuna

Brigada

Bestelakoak:

Tabernak

Anoetako Herri Ikastola

1.2. ZE INDARKERIA KASURI EMAN NAHI DIE ERANTZUNA PROTOKOLO HONEK

Protokolo hau **INDARKERIA MATXISTA** kasuen aurrean aktibatuko da.

INDARKERIA MATXISTA tzat joko dugu sozializazio binarioan eta genero ezberdintasunean jatorria duen indarkeria. Honen barne, **indarkeria sexista** (emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria; duen helburua emakumeen kontrola eta haien gaineko nagusitasuna betikotzea da) eta **beste indarkeria matxista batzuk** (hau da, atxikita daukaten genero binario eta sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonak pairatzen dituztenak. Homofobia, lesbofobia, transfobia eta intragenero indarkeria lirateke).¹

¹ “Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria”-n proposatutako definizioa.

Protokoloa kasu hauetan aktibatuko da:

- Erasoak jaiak irauten duten bitartean eta jaietako eremuan gertatu bada.
- Indarkeria matxista salatzen den kasu guztietan.
- Indarkeria matxista jaso duen pertsonak laguntza edo protokoloa aktibatzea eskatuko balu.
- Indarkeriaren piramidearen goiko aldean, IKUSTEN DENA lelopean, agertzen diren kasuetan BETI aktibatuko da protokoloa.

INDARKERIAREN PIRAMIDEA

IKUSTEN DENA

IKUSEZINA

ERAILKETA

ERASO FISIKOAK

BORTXAKETAK

MEHATXUAK

OIHUAK

IRAINAK

UMILAZIOAK

ERRUDUNTZEAK

GUTXIESPENAK

BAZTERKETA

XANATAIA EMOZIONALAK

UMORE SEXISTA

KONTROLA

PUBLIZIDADE SEXISTA

HIZKUNTZA SEXISTA

INBISIBILIZAZIOA

MIKROMATXISMOAK

GIZARTE PATRIARKALA

ZUZENEKO INDARKERIA:

Gizon batek emakume bati
eragiten diona.

ZEHARKAKO INDARKERIA:

Estrukturala

Sozio-ekonomikoa (sinbolikoa)

1.3. ZE MOMENTUTAN EGONGO DA MARTXAN PROTOKOLO HAU

Protokolo hau honako jai/ekitaldietan egongo da martxan:

- **Herriko jaietan**
- **Kuadrila egunean**
- **Kultura batzordearen erabakiz beharrezkoa irizten den beste ospakizunetan**

1.4. ZEINTZUK IZANGO DIRA PROTOKOLO HAU GIDATUKO DUTEN PRINTZPIOAK:²

- **Laguntza osoa eta pertsonalizatua.** Protokolo honetan egoera bakoitzetik sortzen diren behar ezberdinak hartuko ditu barnean eta, horretarako, kasu bakoitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak jarriko zaizkie eskura.
- **Berdintasuna.** Arreta erasotu guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da, honako ezaugarriengatik inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu orientazioa, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentzorialak, edota beste edozein izaera pertsonal edo sozial. Era berean, beharrezko neurriak hartuko dira beren egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituztenen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, bereziki, ezgaitasunak dituzten pertsonen eta emakume etorkinek, edozein dela ere beraien egoera administratiboa, eskubide horiek izan ditzaten.
 - Bereziki, ezgaitasunak dituztenek dauden informazio eta baliabideak erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira (laguntzak garraioa erabiltzeko, lagun egiteko, keinu hizkuntzako interpreteak, braillez idatzitako dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.). Pertsona atzerritarrek hizkuntzaren aldetik izan ditzaketen eragozpenak gainditzeko edo arintzeko neurriak ere hartuko dira.

² Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioak zehazten dituen printzipioak dira hauek.

- **Prebentzioa**. Jasotako jarraibide multzoa aplikatuko da biktimen aurkako indarkeria egoerarik errepikatu ez dadin. Biktimak izan daitezke bai erasotuak, bai beren kargu dituzten umeak eta nerabeak edo beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduak.
- **Adingabeen interesen defentsa**. Jarduera protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek beren kargu dituzten adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Beti kontuan hartu beharko da umeen eta nerabeen interes gorena, haurrei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak xedatzen duen bezala.
- **Jabekuntza eta normalizazioa**. Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko garaian, indarkeriaren biktima direnek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezaten ahalegina egin beharko da.
- **Ahalik eta biktimizazio txikiena**. Protokolo honetan aipatzen den indarkeria jasan dutenen bigarren mailako biktimizazioa ahal den neurrian ekidin egingo da eta, hortaz, biktimek profesionalek eta erakundeek esku hartzearen ondorioz jasaten dituzten enbarazuak ahalik eta gehien murriztuko dira.

2. BURUTZEA ADOSTU DENA

2.1. JAIK HASI AURRETIK BURUTUKO DIREN EKINTZAK:

- **PROTOKOLOAREN DIFUSIOAREKIN ERLAZIONATUTAKOAK:**

- **Jaletako egitarauan protokoloaren berri** emango da, horretarako espresuki gordeko den orrialde batean. I. Gehigarrian dago azalduko den informazioa.
- **Protokoloaren aurkezpen publikoa:** egitaraua herrian zabaldu eta berehala egingo da aurkezpena. Batzordeak kudeatuko duen arren, protokoloaren eratze prozesuan partaide izan diren eragile guztiek hartuko dute parte aurkezpenean. Honela, besteak beste, erreferenteak sortzea izango da helburu, zerbait gertatu ezkerro herritarrek jakin dezaten nork duen egin beharrekoaren inguruko informazio gehiago.
- **Tabernariekin lanketa** egingo da: bilerara batera deituko ditu batzordeak protokoloa aurkezteko. Bilerara etortzen ez direnekin lanketa indibiduala egingo da. Azken batean, tabernak jaietan ia egun osoz zabalik daudenez erreferentziazko eragileak direnez oso garrantzitsua da lan honetan inplikatu daitezen lan egitea.

- **ANOETA INDARKERIAREN KONTRA POSIZIONATU ETA SENTSIBILIZATZEARI LOTUTAKOAK:**

- **Erasoen aurkako kartelak** jartzea toki jendetsuetan, indarkeria mota guztiak ikustarazteko helburua ere izango dutenak:
 - Aurreko urteetan jarri izan diren kartekez aparte, beste batzuk sortuko dira.
 - Proposamena hitz gutxikoak izatea da, irudiez baliatuz mezuak bidaliko dituen. Horretan aditua den norbaitek egin ditzan eskatu edo beste herrietan egiten denaz baliatu daiteke.
 - Ildo honetan, beste herri batzuetan egiten ari den moduan, Anoetako sarrera-bideetan herriak indarkeriaren aurkako posizionamendua adierazten duten kartelak jartzearen proposamena jaso da. Kartel hauek iraunkorrak izango lirateke, urte osoan mantentzekoak.

2.2. ERASO BATEN AURREAN EGIN BEHARREKOA:

ERASO BAT GERTATU DENAREN SUSMOA BADUZU:

- Adi egon.
- Behar izan ezkerro, laguntza eta informazioa eskaini.

ERASOA IKUSI EDO BERRI IZAN BADUZU:

Erasotuari laguntza eskaini: ***zerbait egin nahi du horren aurrean?***

- Ez badu ezer egin nahi eta arriskuan ez badago, utzi erasotua lasai, bere eskubide osoa dauka eta ez epaitu.
- Erasorearen aurrean zerbait egin nahi badu, eskaini zure laguntza eta esku-orrian azaltzen den informazio hau helarazi.
- Baldin eta eraso larri bat izan bada, eta ezer egiterik nahi ez badu ere arrisku maila altua dela baderitzogu, deitu 112 zenbakira. Bertan aktibatuko dituzte beharrezkoak diren baliabide guztiak (osasun zerbitzuak, gizarte ongizate zerbitzuak, polizia...).

Gertatzen dena gertatzen dela ere, **KONTUTAN IZAN BEHARREKO GOMENDIOAK:**

- Erasotuari zure laguntza eskaini.
- Leku lasai/seguru batera joateko aukera eman.
- Konfiantzazko norbaiti deitzea eskaini.
- Ez utzi bakarrik, hala nahi ez badu.
- Ez behartu gertatutakoa kontatzea.
- Ez epaitu erasotutakoak har ditzakeen erabakien aurrean.
- Guztion ardura da erasoak saihesten lagundu edo zerbait gertatutakoan erantzutea.

Eraso baten aurrean erabilgarri izango den informazioa:

Berehalako laguntza behar bada, eraso larria izan bada:

Anoetan momentu laguntza emateko BATZORDEA: 688612100 (24 orduko zerbitzua)

112 SOS Deiak

Gipuzkoako Larrialdiak: 943 224 411 (larrialdiko egoitza eta laguntza psikosoziala)

Eusko Jaurlaritza: 900840111 (24 orduko zerbitzua)

Berehalako laguntzarik behar ez bada:

Anoetan momentu laguntza emateko BATZORDEA: 688612100 (24 orduko zerbitzua)

Anoetako Gizarte Zerbitzuak: 943651200

Emakume taldea

2.3. ERASO BATEN ONDOREN BURUTUKO DIREN EKINTZAK:

- **JAIEEN ETENA ETA POSIZIONAMENDU PUBLIKOA:**

- Erasoa gertatu eta hurrengo egunean 19'00ak aldera (hau zehaztu beharra dago), egitarauak jasotzen duena jasotzen duela ere, ekintza bertan behera utziko da ordu betez. Tabernak eta txosna-gunea ere itxita mantenduko da tarte honetan.
- Plaza nagusian herritarrei burutuko den elkarretaratzean parte hartzea deituko zaie:
 - “Anoetan erasorik ez erantzunik gabe” lemapean izango da elkarretaratzea.
 - Deialdia kartelen bitartez zabalduko da. Sare sozialen eta komunikabideen bitartez ere zabalduko da deialdia.
 - Komunikatu bat irakurtzearen aukera baloratuko da.
- Gertakariaren ezaugarriek hala eskatuta batzordeko kideek baloratuko dute deialdi honek egokitzapenik behar duen.

- **ERASOTUARI GERTUTASUNA ETA BABESA AZALTZEA:**

- Batzordeko ordezkari bat edota emakume taldeko partaide bat erasotuarekin harremanetan jarriko da, kontaktatzea posible bada, laguntza osoa eta elkartasuna adierazteko.
- Zuzeneko harremana burutzea posible ez bada, batzordeak baloratuko du komunikabideez baliatuz egingo duen.

3. KOORDINAZIO TALDEA

3.1. OSAKETA:

Batzordea, prozesuan partaide izan diren eragileek hala adostuta, 6 lagunez osatua izango da; emakume taldeko 2 ordezkari, 2 ordezkari politiko, tabernarien ordezkari bat eta herri eragileen ordezkari bat.

Jarraian partaideen datuak:

	Izen-abizenak	Ordezkaritza	Harremanetarako zenbakia
1		Emakume taldea	
2			
3		Ordezkarari politikoak	
4			
5		Tabernarien ordezkaria	
6		Herri-eragileen ordezkaria	
7		Anoetako Herri Ikastolaren ordezkaria	

Ordezkariek ez dira finkoak betirako; aldatuko dira, maiztasuna oraindik ez bada zehaztu ere.

3.2. FUNTZIOAK:

Honakoak izan dira adostutako funtzioak:

- Protokoloaren difusioarekin lotutako funtzioak:
 - Protokoloaren aurkezpen publikoa kudeatzea. Aurkezpen publiko honetan protokoloaren eratze prozesuan partaide izan diren eragileei ere zabalduko zaie.
 - Protokoloa herritarrei zabaltzea, sentsibilizazio moduan ere ulertua izango den ekintza.
 - Tabernariekin lanketa egitea: protokoloa aurkezteko saio bat burutuko da, eta behar izan ezker, tabernaz taberna aurkeztuko da.
- Erasoa eman ezker burutuko den ETENA eta ELKARRETARATZEA kudeatzea.
- Eraso baten aurrean laguntza eskaintzeko telefono zenbakia atenditu eta laguntza eskaintzea.
- Jaiak amaituta gertatutakoaren eta erreakzioaren balorazioa egin eta herritarrekin konpartitzea. Baita hurrengo urteari begira, protokoloak behar dituen aldaketak burutzea ere.

Funtzio hauek, behin jaiak pasatuta egingo den balorazioaren ondorioz, aldatzen joan daitezke.

3.3. FUNTZIONAMENDUA:

Hasteko, batzordeko kide guztiek “whatsapp talde bat” sortuko dute eta honen bitartez antolatuko dute funtzionamendua.

